

Por último, las composiciones enviadas, de que se hace mencion en la carta, son las siguientes

GERNIKA-KO ARBOLARI ZORTZIKO.

AZALBIDETUA.

¡Agur, Gernika-Aritza,
Agur da osasuna!
Izarrez-gaiñ alchatu
Gurutze-orriduna;
Sustrayak zabaldurik
Lur-danen barruna,
Esan «*Libre izan bedi*
Erri Euskalduna.»

AZALBIDEA.

Esan beza edozeñek
Bada Fededuna,
Maitaturik egia
Dan libretasuna,
Jainkoaren Semeak
Ekarri ziguna,
¡Agur Gernika-Aritza,
Agur da osasuna!»

Itzez, soñuz eskribuz
Goitu aldeguna
Euskaldunen *Lauburu*
Guztiz ezaguna,
Garaimen andienak
Eman dizkiguna,
«*Izarrez gaiñ alchatu*
Gurutze orriduna.»

Sartu biyotzetara
Maitatzen deguna
Libretasun Zeruko
Landare biguna,
Lora dedin arbola
Karidade-duna
Sustrayak zabaldurik
Lur-danen barruna.

Gorderik Erljio
Bakar-Jainkoduna,
Gure aiton prestuben
Legedi kutuna
Ta ayek itzezin zuten
Euskara eztiduna,
Esan «*Libre izan bedi*
Erri Euskalduna.»